

2012-07-17ko UDALBATZA EZOHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko uztailaren hamazazpian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-BILDU udal-taldekoak: Gorka Murua Makuso, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola, eta Josu Yurrita Loitegui

Ez da etorri: EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-05-29).- 2012ko maiatzaren 29ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2012ko 76. zenbakitik 108. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

TRINKETE-FRONTOIAREN ARAUDIAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Trinketearen eraikina berritzen ari da eta komenigarria da bere araudia, eta frontoiarena, berritzea.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez honako erabakia hartu du:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea IRURAKO TRINKETE-FRONTOIAREN ARAUDIARI.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, akordioa behin betikotzat joko da, eta indarrean dagoen legedia beteko da.

Erabaki hau behin behinekoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

UDAL ZERBITZUEN PRESTAZIO TASEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Trinketeko berritze-lanak egiten ari direnez, egokia da bertako zerbitzuak erabiltzeagatik kobratzen ziren tasak aldatzea.

Era berean, proposamenari aldeko irizmena eman diote Ogasun, Kontu eta Administrazio batzordean, gaur bertan eginiko bileran.

Beraz, Korporazioak aho batez erabaki du honakoa:

Estando realizándose las obras de renovación del Trinkete procede modificar las tasas que anteriormente existían por la utilización de los servicios allí disponibles.

Así mismo la propuesta ha sido dictaminada favorablemente por la Comisión de Hacienda, Cuentas y Administración en sesión celebrada hoy mismo.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los

presentes, lo siguiente:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea frontoia eta trinketea erabiltzeagatiko tasei. Tasa hauek udal zerbitzu publikoak erabiltzeagatiko Tasaren Ordenantza Fiskalaren barnean daude. Honela geratuko lirateke:

1.-TRINKETEA.

A) Hiruhileko abonua: 15 euro.

-14 urtetik gorako norbanako helduentzat.

-Familiakoa: familiako kide bakoitzeko 15 euro (14 urtetik beherakoek %50eko beherapena).

-Familia ugaria: %30eko beherapena.

-Jubilatuak: %30eko beherapena.

-Langabetuak: %30eko beherapena.

Sartzen diren zerbitzuak: gimnasioa, dutxak, kantxa erabiltzeko beherapena (1 euro pertsonako eta orduko) eta kirol-eskoletarako beherapena (%10).

-Abonatu-txartel berria egiteagatik (galdu edo baliogabetu delako....) 5€

B) Eguneko bonua: 2,5 euro.

Primero.-Aprobar inicialmente las Tasas por la utilización del Frontón y Trinkete, que están incluidas en la Ordenanza Fiscal de la Tasa por utilización de los servicios públicos municipales, y que quedaría de la siguiente forma:

1.-TRINKETE.

A) Abono trimestral: 15 euros.

-Individual para mayores de 14 años.

-Familiar: 15 euros por cada miembro familiar (los menores de 14 años, con el 50% de descuento).

-Familia numerosa: 30% de descuento.

-Jubilados: 30% de descuento.

-Desempleados: 30% de descuento.

Servicios incluidos: Gimnasio, Duchas, descuento para utilizar la cancha (1euro x persona x hora) y descuento para clases deportivas (10%).

-Por expedición de nueva tarjeta de abonado (en caso de pérdida, inutilización....): 5€

B) Bono diario: 2,5 euros.

Sartzen diren zerbitzuak: dutxak eta gimnasioa.

Aurrez eskatutako orduak : 15 euro orduko.

Sartzen diren zerbitzuak: gimnasioa, dutxak eta argia kantxan.

2.-FRONTOIA:

-Orduko 3 euro.

-20 minutuko euro 1

Jendaurrean jarriko dira hartutako erabakiak, aldatutako ordenantzak eta bideratutako espedienteak, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 16.1 artikulua agindu bezala; horrela, iragarkiak argitaratuko dira bide ofizial hauetan: udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko egunkaririk zabalduenetako batean. Hori dena arau hauen barruan.

a) Non dauden agerian: Udal honetako idazkaritzan.

b) Aztertzeko eta erreklamatzeko epea: 30 egun balioudun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, eta

Servicios incluidos :
Duchas y Gimnasio.

Horas Reservadas: 15 euros por hora.

Servicios incluidos: Gimnasio, duchas y luz en la cancha.

2.-FRONTON :

-Por hora: 3 euros.

-Por 20 minutos: 1 euro.

Los acuerdos adoptados, las ordenanzas modificadas y el expediente al efecto instruido se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en este medio oficial y en el tablón de edictos de la Casa Consistorial, todo ello conforme a las siguientes reglas:

a) Lugar donde se hallan de manifiesto: En la Secretaria de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinarlos y, en su caso, para formular las reclamaciones: 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este

bulegoko orduetan.

c) Zein organoren aurrean aurkeztu errekurtsoa: Osoko Bilkuran.

d) Erreklamazioa egin dezaketanak: Uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foraleko 17. artikuluan azaltzen direnak.

e) Non aurkeztu: Udaleko Sarrera Erregistro Orokorrean. Administrazio Prozedurako Legeak bere 66. artikuluan esaten duen tokietan ere bai.

anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.

c) Órgano ante el que se recurre: Ayuntamiento Pleno

d) Legitimados para reclamar: Los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

e) Lugar de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento. Así como en los sitios que relaciona la Ley de Procedimiento en su art. 66.

Informazio hau emateko epea amaitu ondoren erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos adoptados, sin necesidad de emitir nuevos acuerdos.

BOSGARREN GAIA

2011KO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTUA EMATEA

2011ko Aurrekontuaren Likidazioa onartzen duen Alkate-dekretuaren berri eman da:

“Udal honen 2011(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren,

bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2011(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2011-12-31n:			1.054.512,46
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2011-12-31n:			360.774,72
Aurrekontuko zordunak :	345.815,59		
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	14.959,56		
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	-0,43		
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n:			1.419.798,34
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	558.456,36		
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00		
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	861.341,82		
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,16		
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):			-4.511,16
5.- Saldo kobragaitzak:			0,00

6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	-4.511,16
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	-4.511,16
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-299.717,99
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-17.395,18
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	239.199,01
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	-77.914,16
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	0,00

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Halaber, Idazkari-kontuartzailleak txosten bat egin du adieraziz Udala Finantza-orekan dagoela, Aurrekontu Egonkortasunaren legearen arabera.”

Hau izapide-egintza bat da.

SEIGARREN GAIA

2013KO TOKIKO JAI OFIZIALA IZENDATZEA.

Udalbatzak aho batez berresten du Alkatearen Dekretu hau:

“2012ko ekainaren 4an argitaratu da EHAOn Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2013. urteko jaiegunen egutegia onartzen duen dekretua. Joan den urtean bezala, tokiko jaietako beste egun bat izango da lan ondorioetarako, ordaindu egingo da eta ez da errekuperatu beharko. Enplegu eta Gizarte Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako udalbatzek proposatuta.

Hori ikusita, eta presazko arazoak direlako, ebatzi behar da jai egun hau.

Horregatik hau

EBAZTEN DUT:

1. -2013rako Irurako tokiko jai egun ofiziala hau izatea:

- Irailaren 30a, San Migel hurrengo eguna.

2.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko lurralde ordezkariari Dekretu honen jakinarazpena bidaltzea eta datorren osoko bilkuran ere Dekretu hau sartzea, hala badagokio, berresteko.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZAZPIGARREN GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAKETAKO PLAN OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN BERRI EMATEA

Irurako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Testu Bategina 2012ko uztailaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dela jakinarazi da.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZORTZIGARREN GAIA

UEMA MANKOMUNITATERAKO 2012KO EKARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

UEMAk 2012ko urtarrilaren 14ko Batzar Nagusian onartu zituen 2012rako kuotak: Irurari dagokion kopurua 6.408 eurokoa da.

Euskara Informatiboaren Batzordeak aldeko proposamena egin du 2012ko maiatzaren 10eko bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez onartu du ekarpena ordaintzea eta erabakia interesatuari jakinaraztea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

2012ko UDAL JAIEN EGITARUA ETA AURREKONTUA.

San Mielak 2012 herri jaien egitarua eta 42.350 euroko aurrekontua aurkeztu da.

Kultura Batzorde Informatiboak aldeko proposamena egin du 2012ko uztailaren 13an egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

HAMARGARREN GAIA

GALDE ERREGUAK.-

Zati honetan, alkateak jakinarazi du telefoniako zerbitzuak emateko kontratua sinatu dela Euskaltekin baldintza onetan, eta, gainera, uko egingo zaiola zerbitzu bera kontratatzeko asmoz Gipuzkoako Kontratazioaren Zentralean parte hartzeari.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:10ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA